

## EGUNEKO AHOLKUA

### HAMAIKAGARREN AHOLKUA: NOLA ULERTU HOBETO GASAREN FAKTURA

#### Gas Kontsumoa

Gas-kontsumoak energia primarioaren %17,8 hartzen du. Azken urteetan gas-kontsumoa bikoiztu egin da Euskadin, nahiz eta oraindik ez den Europar Batasuneko batez bestekora iritsi.




GUÍA INFORMATIVA PARA LOS  
CONSUMIDORES DE GAS NATURAL

#### Gasaren Faktura

Fakturan informazio garrantzitsua agertzen da, hala nola kontratatuta dagoen zerbitzua, kontsumitutako gas kantitatea, kontsumoaren historikoa, benetako irakurketa edo irakurteta estimatua m<sup>3</sup> eta PCDS aedo bihurketa-faktorea (kwh). Gainera, kontsumoaren historiala ere aurkituko dugu, metro kubikotan, etxe bakoitzen urteko, hileko eta eguneko kontsumoa kalkulatzeko moduan.

Gas naturalaren m<sup>3</sup> bat 11,74 kwh-ren baliokidea da. Halere, konpuru hori aldakorra da, gasaren osaeraren arabera.

#### 1. Fakturaren datuak



**Goiko aldeko ezkerreko izkina:** faktura igortzen duen Iberdrola Taldeko sozietatearen izena.

**Goiko aldeko eskuineko izkina:** faktura motaren erreferentzia (elektrizitatea, gasa...).

**Fakturaren aldia:** fakturazio-epearen hasiera eta amaierari dagozkien datak.

**Fakturaren zenbakia:** faktura identifikatzeko kodea.

**Fakturaren igorpen-data:** Iberdrolak dagokion faktura igortzen duen unea.

**Karguaren data:** faktura honi dagokion kargua zure banku-erakundearen gauzatuko den eguna.

**Benetako irakurketarekin gauzatutako faktura:** faktura bakoitzean gauzatzen den irakurketa mota da. Adibidean benetako bat agertuko litzateke, baina balioetsia ere izan daiteke.

**Kontratuaren titularra:** kontratuan ageri den pertsonaren izena.

**IFZ:** identifikazio fiskaleko zenbakia, pertsona fisikoa delako.

**Hornidura-kontratuaren erreferentzia:** zure kontratua identifikatzen duen kodea. Edozein kudeaketa egiteko, gure arreta-kanalek kode hori eskatuko dizute identifikazitezen.

## 2.- Fakturazio-laburpena eta kontsumoaren bilakaera

Hemen dituzu energiaren laburpena, kontratatutako zerbitzuak eta horiei dagokien BEZa.

Halaber, kontsumoaren bilakaera ikusi dezakezu, fakturazioaren laburpenaren eskuinaldean ageri den grafikoaren bidez; bertan azken hilabetetako gas naturalaren kontsumoa zehazten da, kWh-tan. Hala, azken aldiko kontsumoa aurreko urteko aldi berdinarekin alderatu ahal izango duzu. Nabarmendutako marra horizontalak zure kontratuaren batez besteko kontsumoa adierazten du. Kontsumoa balioetsia denean, dagokion grafikoaren barra marrekin agertuko da.

## 3.- Hornidurari lotutako datuak

Zuren energia-horniduraren datuak eta ezaugarriak ezagutzeko beharrezkoa den informazioa eta ordainketa-datuak.

**Neurgailua:** zure neurgailua edo kontagailua identifikatzen duen kodearekin.

**Hornidura-kontratuaren erreferentzia:** zure kontratua identifikatzen duen kodea. Edozein kudeaketa egiteko, gure arreta-kanalek kode hori eskatuko dizute, identifikazitezen.

**Sarbide-kontratuaren zenbakia:** enpresa banatzailearekin duzun hornidura-kontratuaren erreferentzia.

**Hornidura-puntuaren identifikazioa (CUPS):** hornidura-puntuaren Kode Unibertsalak hornidura-puntua identifikatzen du edozein enpresa banatzaile edo merkaturatzailearen aurrean. Horniduraren NANaren antzekoa da.

**Ordaintzeko era:** fakturak ordaintzeko aukeratzen duzun modua. Kasu gehienetan bankuan helbideratuz egiten da. Ordainketa helbideratuta ez dagoenean, barra-kode bat agertuko da fakturaren aurrealdean. Kasu horretan, hitzartutako banku-erakundeetan ordaindu beharko da, faktura aurkeztuta.

**Erakundearen datuak, IBAN, BIC eta ordainketak** helbideratzen diren agindu-kodea. IBAN kodeko azken digituak ezkutatu egiten dira zure bankuko datuen konfidentziasuna bermatzeko.

**Sarera sartzeko bidesaria (ATR):** banatzaileak bezeroari gasaren urteko kontsumoaren arabera esleitzen dion bidesaria:

- 5.000 kWh/urte-ko kontsumoa edo txikiagoa. (3.1)
- 5.000 kWh/urte-tik gorako kontsumoa eta 50.000 kWh/urte-tik beherakoa. (3.2)
- 50.000 kWh/urte-tik gorako kontsumoa eta 100.000 kWh/urte-tik beherakoa.
- 100.000 kWh/urte-tik gorako kontsumoa eta 3 GWh/urte-tik beherakoa.

**Bidesarien prezioak:** bidesariei aplikatzen zaizkien prezioak.

**Kontratuaren iraupena:** Kontratua amaitzen den data; une horretan, hortaz, berriztatu edo indargabetuko litzateke. Automatikoki berritzen da; beraz, ez duzu zertan kezkatu.

**Helbide fiskala:** zerga-arloko administrazio publikoan erregistratutako helbidea.

#### 4. Fakturazio-xehetasunak eta kontsumoak

**Fakturatutako kontsumoa:** fakturatutako aldian egin duzun kontsumoaren zenbatekoa da. Aldi horretarako kontsumoa (kWh) eta kWh-aren prezioa biderkatuta kalkulatzen da.

**Beherapenak:** halakorik badagokio, aurreztutako zenbatekoa adierazten da.

**Gas naturalaren gaineko Zerga:** Gas naturalaren gaineko zerga bat da, eta horrela kalkulatzen da: fakturatutako kontsumoaren kWh-ak bider 0,00234 €/kWh; hori 0,65 €/GJ-ren baliokidea da, iraunkortasun energetikorako neurri fiskalei buruzko abenduaren 27ko 15/2012 Legean ezartzen denaren arabera.

#### 5.- Zerbitzuak eta beste kontzeptu batzuk

Energiaren osagarri diren beste zerbitzu batzuekin loturiko kontzeptuak barne hartzen ditu, kontratatu badira

**Fakturazio-aldiko egun-kopurua :** kontagailuaren hileko alokairuaren prezioarekin bidertuz kalkulatzen da, kontagailua bezeroarena ez bada (bezeroarena bada, ez da fakturitzen). Administrazioak arautzen du bere prezioa

#### 6.- Energiaren, zerbituen eta kontzeptu batzuen guztizkoa

Energiagatik, zerbitzuengatik eta aurreko ataletan zehaztutako beste kontzeptuengatik fakturatu beharreko guztizko zenbatekoa jasotzen du. Zenbateko horri BEZa gehitzen zaio.

**Fakturaren zenbatekoa guztira:** ordaindu beharreko fakturaren azken zenbatekoa da.

Batzuetan lerro bat baino gehiago ager daiteke kontzeptu bakar batean. Fakturazio-aldi berdin baten barruan aplikatu beharreko prezioetan aldaketaren bat gertatu denean gertatzen da hori.